

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak hezkuntzak duen garrantzia azpimarratu du gazteen ohitura osasungarriak sustatzeko

Hala adierazi du Eroskik antolatutako III. Osasun eta Nutrizio Topaketaren irekieran

Martes, 27 de noviembre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak gaur goizean azpimarratu du hezkuntzak garrantzia handia duela gazteen artean bizimodu osasungarriaren ohiturak sustatzeko. III. Osasun eta Nutrizio Topaketaren irekieran adierazi du, eta Iruñeko Baluarteko jauregian egin den topaketa horretan Osasun eta Nutrizioko adituak bildu dira, alde batetik, haur-obesitatearen prebentzioaren inguruan eztabaidatzeko, eta bestetik, haurtzaroan eta nerabezeroan bizimodu osasungarriaren ohiturak zabaltzeko.



Barcina Lehendakaria, Eroskik antolatutako III. Osasun eta Nutrizio Topaketan egindako agerraldian.

Lehendakariak foro horretan nabarmendu du "funtsezkoa dela" hezkuntza-zentroetan gazteei bizimodu osasungarriaren ohiturak erakustea, beste ezagutza batzuk ematen diren moduan.

Goi-hezkuntzari dagokionez, azpimarratu du "unibertsitateko prestakuntza bikaina dugula nutrizio-arloan" eta ideia dela "arlotan horretako ikerketa sustatzea". Horretarako, aipatu du "Gobernua laguntzen ari da ikerketa-zentro gehiago egon daitezen", Nafarroako Unibertsitateak egungo Donapea LHaren instalazioetan proiektatutako nutrizio eta dietetikako zentroari erreferentzia eginez.

Jardunaldia Eroski taldeak antolatu du, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, eta "Nutrizio-hezkuntza haurtzarotik: etorkizuna osasungarriagoa eraikitzen" izena jarri zaio.

Bertan nutrizio-hezkuntzaren zeregina aztertu da hazten ari den haur-obesitatea prebenitzeko. Osasun Ministerioak 2011n egindako azterketa baten arabera, Espainian nerabezero aurreko biztanleen % 44,5k gainpisuaren arazoak ditu. Zehazki, % 26,2k gainpisua du eta % 18,3k obesitatea.

Programa

Topaketa Nafarroako Lehendakariak eta Eroskiren lehendakari

Agustín Markaidek ireki dute, eta Osasuneko kontseilari Marta Verak emango dio amaiera gaur arratsaldean.

[Programak](#) Osasun Ministerioko Osasuna Sustatzeko Arloko buru Begoña Merinok emandako hitzaldia jasotzen du. Hitzaldi horretan administrazio publikoek elikadura osasungarriaren eta jarduera fisikoaren sustapenean zer funtzio duten aipatzen da, bai eta mahai-inguru bat ere Espainiako nerabezaro aurreko nutrizio-egoeraren inguruan eta elikadura-ohituren nahiz jarduera fisikoaren inguruan, bost adituren parte-hartzearekin.

Jardunaldia osatuko da, Gobernu britainiarraren erakunde publikoa den School Food Trust-en ikertzaile eta zuzendari Jo Nicholas-ek emandako hitzaldiarekin, eta Eroskiren Gizarte Erantzukizuneko zuzendari Alejandro Martínezek haur-obesitatea prebenitzeko garaiak taldeak zer konpromiso dituen azaltzen duen hitzaldiarekin.

Gogora ekarri behar da, 2009an Madrilen ospatu zen Osasuna eta Nutrizioa lehen topaketa nutrizioko etiketatzeari buruzkoa izan zela. Bigarrena 2011n egin zen Madrilen ere, eta orduko gai nagusia trans koipeak izan ziren, partzialki hidrogenatutako koipeetatik datozenak.